

X. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

On guztien iturri zaren Jauna,
entzun gure otoitza:
zure argiak argi egin diezagula, zuzen dena ezagutzeko,
eta zure laguntzak indar eman, betetzeko.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Os 6, 3b-6

Opariak ez, baino leialtasuna nahi dut Nik.

Oseas Profetaren liburutik

Ahalegin gaitzen, Jauna ezagutzen:
egunsentia bezala da Haren etorrera;
argia bezala altxatzen da Haren erabakia.
Neguko euria bezala isuriko da gure gainera,
lurra girotzen duen udaberriko euria bezala.
Zer egingo dizut zuri, Efrain?
Zer egingo dizut zuri, Juda?
Zure errukia goizeko lainoa bezala da,
lurruntzen den goizeko ihintza bezala.
Horregatik zauritu zaituztet Nik profeten bitartez,
eta galdu zaituztet nire ahoko hitzez.
Opariak ez, baino leialtasuna nahi baitut Nik;
Jainkoaren ezaguera dut nahiago,
erre-opariak baino.

ERANTZUN SALMOA: Sal 49, 1 eta 8. 12-13. 14-15

R/. **Zuzen dabilenari diot**
Jainko salbamera erakusten.

Jainkoen Jainko Jauna mintzo da:
Sortaldetik sartalderaino lurrari deika.
«Ez zaitut salatuko zure opariak direla eta,
zure erre-opariak beti aurrean baitauzkat. R/.

Ez nizuke esango gose banendi,
neure baitut lurbira, bertan dauden guztiekin.
Jango ote dut, bada, zezen okelik?
Edango ote dut aker odolik? R/.

Eskain iezaiozu gorets-oparia Jainkoari,
bete zure zin hitza Goi-goikoari.
Estualdian dei egidazu,
askatuko zaitut, eta edertuko nauzu.» R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 4, 18-25

*Sinesmenean indartu egin zen,
aintza emanik Jainkoari.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Abrahamek, itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen itxaropen guztien kontra, herri askoren aita izango zela; esan zitzaion bezala: «hainbestekoa izango da zure ondorea».

Eta bere sinesmenean ahuldu gabe iraun zuen, bere gorputza ordurako hila ikusten bazuen ere —ehunen bat urte baitzituen—, eta Sararen sabela ere agorra. Jaungoikoaren agintzariaren aurrean, Abraham ez zen sinesgogor izan; sinesmenean indartu egin zen, aintza emanik Jainkoari; bazekien eta, Jaungoikoak baduela ahalmen, hitzemandakoa betetzeko. Hori zela eta, sinesmena aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako.

Baina «aintzat hartu zitzaiola», Liburu Santuak ez du hori harengatik bakarrik esaten, guregatik ere bai; guri ere aintzat hartuko zaigu, Jesu Kristo gure Jauna hilen artetik berpiztu zuen Harengan sinesten badugu: gure bekatuengatik emana izan baitzen, eta gure zuzentasunerako berpiztua.

EBANJELIOA: Mt 9, 9-13

Aleluia: Ik. Lk 4, 18b-19a

R/. Aleluia.

V/. Behartsuei berri ona ematera bidali nau Jaunak,
gatibuei askatasuna hotsegitera. R/.

*Ez naiz zintzoei dei egitera etorri,
bekatariei baizik.*

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergalari mahaian eserita, eta esan zion: «Jarrai Niri». Eta Mateok, zutitu eta jarraitu egin zion.

Jesu mahaian zegoela Mateoren etxean, zergalari eta bekatar asko etorri ziren, eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta Honen ikasleekin. Farisearrek, hori ikusita, honela esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten du zuen Maisuak zergalari eta bekatariekin?»

Jesusek, hori entzunik, esan zion: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagile. Zoazte, bada, eta ikas zer esan nahi duen esaera hark: "Opariak ez, baina errukia nahi dut Nik". Ez bait naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Oparigaien gainekoa

Begi onez begira, Jauna, aldareko gure zerbitzuari:
gure eskaintza Zuretzat atsegingarri izan dadin
eta gure maitasunarentzat sendogarri.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko guztiz ona,
Zuk emandako sendabide honek
geure gaizakerietatik atera gaitzala
eta bide zuzenera eraman.
Jesu Kristo.